

## ETXEZ ETXEKO ZERBITZUARI DAGOKIONEZ UDALAREN KONPROMISOAK

Udalak hurrengo bilerak izan ditu Inagileekin:

Bi asanblada ospatu ditu udalak langileekin lehen eskutik berri emateko nola dagoen gaia:

- Maitzaren 23, arratsaldeko 18:00
- Uztailaren 16, eguerdiko 14:30

Uztailaren 6, Udalak eta Etxez Etxeko Langileen ordezkariarekin eta ELA ordezkariarekin bilera bat izan zen Udaletxean etxez-etxe langileen egoeraz hitz egiteko. Ostean, Uztailaren 16an asanblada bat ospatu zen langileekin.

Udal Gobernuak, Uztailean dagoeneko zerrendatuko diren konpromisoak hartu zituen:

- 1) Langileek mozio bat aurkeztu zentean uztaileko osoko bilkuran eskatuz: pleguen publikazio prozesua geldiaraztea langileen lan baldintzak bermatuta gelditu bitartean. Udalak pleguak geldiarazi zituen eta horregatik ez diran orain arte pleguak martxan jarri.

Gainera, Clecek jakinarazpena bidali zigun Uztailaren 20an esanez kontratua bukatu ahala 2018ko uztailaren 31an ez zuela jarraituko zerbitzua ematen. Eta irakurri egingo dizuet CLECEren jakinarazpena.

Bi hilabete hauetan Udalak zerbitzua ematen jarraitu du nola-hala inolako kontraturik gabe, uda medio CLECEk zerbitzua ematen jarraitu behar izan du bi hilabetetan, abuztua eta iraila.

Horregatik administrazio batek ezin du zerbitzu bat eman kontraturik gabe eta legeak behartzen gaitu plegu berriak lehen bai lehen ateratzea.

Plegu hauetan gure konpromezuei helduko diegu, hauek izanik:

- a) Erabiltzaileari etxez-etxe laguntza prezio/ordua jeistea zerbitzua erakargarriagoa izateko eta ondorioz zerbitzuren eskaera handitu dadin. Erabiltzaileari gehinez 15€ orduko kobratuko zaio ( gaur egun 18,52€ da gehienezko prezioa). Erabaki hori uztaialeko plenoan dagoeneko hartu zen.

- b) Zerbitzua asteko egun guztietan ematea onartu zen Uztaileko plenoan langileek ordu gehiago lan egiteko aukera izan dezaten.
- c) Arrasateko Udalak %35ean igoko du zerbitzuaren lizitazioaren prezioa igoera horrek eragin zuzen eta positiboa izan dezan zerbitzua eskaintzen duten langileen diru ordainean.
- d) Langileen lan baldintzak bermatzea eskatuko da pleguetan
- e) Baldintza izango da aurkeztu beharrezko enpresak Gizarte Ekonomiako enpresa bat izan beharko dela (kooperatiba edo antzekoa); modu honetara, ezingo dira aurkeztu enpresa kapitalak.

---

#### AMAITZEKO

Udaletik errepikatu nahi dugu, langileei asanbladetan abokatuekin behin eta berriz azaldu zaien bezala, Udalak ez duela eskumenik eta ezin duela esku hartu enpresak eskaintzen dituen ordu pribatuetan.

Udalak ordu publikoetan du eskumena eta gure konpromisoak ordu publikoetara mugatuko dira. Ez dugu onartuko herritarrak eta langileak nahastea eta Udalari ixigitzea ordu pribatuetan eskua sartzeko, juridikoki ez instituzionalki horretarako eskumenik ez duenean. Eta hau behin eta berriz azaldu denean.

BUKATZEKO, berriz ere udal gobernu honek eskua luzatu nahi dizue orain prestatzen hasiko garen pleguak zuekin batera lantzeko.